

Jaiotzak %9,7 gutxitu ziren Euskal AEn 2018ko bigarren hiruhilekoan

Ezkontzabeko amen haurrak %43,1 izan ziren

2018ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEn 3.919 haur jaio ziren, iazko aldi berean baino %9,7 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Jaitsiera hiru lurraldeetan gertatu da, ezberdinki dena dela: bistakoagoa Araban (-%15,4) eta Bizkaian (-%10,8) Gipuzkoan (-%4,8) baino. Araban 631 haur jaio ziren; Bizkaian, 1.970; Gipuzkoan, 1.318.

2018ko apiril, maiatz eta ekainean ezkontzaz kanpo jaioak izan ziren guztien %43,1 (%44,5 2017ko hiruhileko berean). Bizkaian %46,4koa izan zen ehunekoa, Euskal AEko batezbestekoaren gainetik lurralde bakarra; Araban eta Gipuzkoan horren azpitikoak izan ziren ehunekoak, %40,7 eta %39,3, hurrenez hurren.

2018ko bigarren hiruhilekoan, erdiak ia, 1.884, lehenengo haurrak izan ziren; 1.558 haur (%39,8) aurretik beste bat bazen familietara etorri ziren; hirugarren eta ondorengoak %12,2 izan ziren.

10 jaiotzatatik 1ean amak 40 urte edo gehiago zeukan

Jaiotzak amaren adinaren arabera banaturik, 30-34 urteko amen taldea nagusi da oraindik ere, erditzeen %35,4rekin, ondorengo taldearen parean ia (35-39 urtekoak, %35,3); bion artean dira erditzeen %70,7. Ehuneko askozaz txikiagoekin dira, aurrekoen aldean, 25-29 urteko amak (%13,0) eta 25 urtez beherakoak, %6,1. 40 urte edo gehiagokoak %10,2 dira, portzentajeazko 1,4 puntu gehiago aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Ama ezkontzaberen amatasun-adina multzoarenaren azpitik dago, zeren ezkontzaberen %9,8 25 urtez beherakoak baitziren, eta 25-29 urteen artekoak %15,7.


Amen %25,1, atzerritarrek

Euskal AEn 2018ko udaberriko jaiotzen %25,1ean ama atzerritarra zen; 2017ko aldi berean, %20,9. Lurraldeka, Araban %32,3, Bizkaian %22,4 eta Gipuzkoan %25,5.

Euskal AEn bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2018/II		Aurreko hiruhilekoa (2018/I)		Aurreko urteko hiruh. bera (2017/II)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	3.919	100,0	3.870	100,0	4.338	100,0
Araba / Álava	631	16,1	678	17,5	746	17,2
Bizkaia	1.970	50,3	1.900	49,1	2.208	50,9
Gipuzkoa	1.318	33,6	1.292	33,4	1.384	31,9
Amaren adina	3.919	100,0	3.870	100,0	4.338	100,0
≤ 24 urte	240	6,1	220	5,7	230	5,3
25 - 29 urte	510	13,0	515	13,3	603	13,9
30 - 34 urte	1.386	35,4	1.366	35,3	1.587	36,6
35 - 39 urte	1.384	35,3	1.374	35,5	1.537	35,4
≥ 40 urte	399	10,2	395	10,2	381	8,8
Amaren egoera zibila	3.919	100,0	3.870	100,0	4.338	100,0
Ezkondua	2.229	56,9	2.157	55,7	2.403	55,4
Ezkongabea	1.690	43,1	1.713	44,3	1.935	44,6
Amaren naziotasuna	3.919	100,0	3.870	100,0	4.338	100,0
Espainiarra	2.937	74,9	2.948	76,2	3.431	79,1
Atzeritarra	982	25,1	922	23,8	907	20,9
Jaiotza-hurrenkera	3.919	100,0	3.870	100,0	4.338	100,0
Lehenengoa	1.884	48,1	1.906	49,3	2.157	49,7
Bigarrena	1.558	39,8	1.504	38,9	1.751	40,4
Hirugarrena edo gehiago	477	12,2	460	11,9	430	9,9

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroko datuak


Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62